

Bilbon, 2008ko Abenduaren 18an.

EMAKUMEEN HIRI DEBEKATUAREN MAPAREN JARDUNALDIEN ONDORIOAK.

PARTEHARTZEA.

Talde ezberdinetako 9 emakumek hartu dute parte. Denak Hiri Debekatuaren Maparekin harremana izan dute. Bilbotik Uribarri, Santutxu, San Frantzisko eta Zorroza auzoetako emakumeek parte hartu dute, eta Bilbotik kanpo, Galdakaoko emakume bat hurbildu zaigu.

PARTEHARTZAILEAK HURRENGO HAUEK DIRA:

-Ziortza Galdakaokoa da, eta Bengoetxe auzoko emakume elkarte batean dabil lanean, 2.006. urtean Galdakaoko emakumeentzako leku arriskutsuak eta baita hirigintzako oztopoak salatuz. Arazo hauei aurre egiteko aukerak planteatu dituzte.



-Hegoa Bilgune Feministako partaidea daukagu, bera da hiri debekatuaren maparen jarraipena egin duena. Bilgune Feministak gehien bat auzo guztietako eta Aste Nagusiko festetan zabaldu du.

-Eneritz eta Aitziber (arkitekturako ikasleak). Iduna Santutxu emakume taldeko partaideak dira, Santutxuko Hiri Debekatuaren Mapako puntu beltzen jarraipena eginez. Auzo honetako festetara, puntu beltzak egokituz. Erasoan inguruan hitzaldiak eta manifestazioak antolatu dituzte. Santutxu auzoko puntu arriskutsuekin bideo bat egin dute, puntu hauei alternatibak bilatuz.

-Janire eta Gemma, Bilboko Udalaren Berdintasun guneko proiektu batean parte hartu dute. Proiektu horretan, emakumearen ikuspegitik, Zorroza auzoko

hirigintzako diseinua aztertzen dute. Ondorioak, Zorroza auzora zabaldu nahi dituzte beraiek sortutako boletin baten bitartez.

-Aitziber (arkitektoa), Aletu Uribarriko Emakume Elkarteko partaide daukagu. Hiri Debekatuaren Maparen gainean ez du harremanik izan. Baina oso interesatuta dago emakume eta hirigintza gaiarekin. Unibertsitateko proiektua Emakume eta Arkitekturari buruzkoa burutu zuen.

-Mariluk eta Lidiak, Bilboko Udalaren Berdintasun Planaren gunean parte hartu dute. Bilbo Zaharra eta Zabala auzokoak dira, Aukeren Mapa, emakumearen perspektibatik landutako mapa bat sortu dute, honez aparte baliabide zerrenda bat : aisialdia, kultura mundua, hezkuntza, lan mundua, osasun zerbitzuak, gizarte laguntzak...biltzen dituen.



ONDORIOAK.

Hiri Debekatuaren Mapako Alde txarrak edo behintzat hobetu beharko liraketenak.

Leku arriskutsuak eta hirigintza arazoak hautemateko erabilitako prozedurarekin, zaila da emakumearen parte hartzea ematea , proiektu beraren ezagupena ez baitu edota hirigintza gaia oso konplikatu ikusten baitu.

Proiektuaren prozedura adin ezberdineko emakumeei egokitu behar zaio:

- Laburbilduz erabilitako terminoak (genero ikuspegia, hirigintza diseinua, eztabaida taldeak...)
- Saio luzeko bilerarik ez antolatu.
- Talde dinamikak sortzerakoan dinamika zehatz batzuk erabili behar ditugu non emakumearen partehartzea zihurtatzen den, zaintzaile zerbitzuak eskeini...

Beste alde batetik, Instituzioen konpromiso eza kritikatzeko da kasu askotan, egitasmoen ondorioak emakumeen artean ez dira zabaltzen. Horrez aparte, Instituzioek, maparen sormenean parte hartu duten emakume asko ez informatzeak, fustrazio eta motibazio eza sortzen du haiengan.

Emakumeek sortu duten puntu arriskutsuen mapari eta eskaini dituzten alternatiba berriei, jarraipenik ez diotela egin, salatzekoa da, are gehiago, proiektua eskatu duten udaletxe edo instituzioak.

Egon badago, aipatzen duena, instituzioen esku horrenbeste ez zela delegatu behar baizik eta herri mugimenduengan.

Azkenik, azpimarratu zen, Udaletxeetako Hirigintza guneko pertsonala, genero ikuspegitik zein formakuntza eza duen. Begi bistan dago, Mugimendu Feminista edo Emakume Elkartek askok, udaletxeekin heziketa eta jarraipen bat egin behar dutela.

Hiri debekatuaren mapan ateratako alde onak.

Norbanakako maparen sormenean, parte hartutako emakumeekin hitz egiten dugunean, esperientzia ona izan dela diote.

Hirigintza gaiaren ezagupenak zabalagoak dituzte, emakumearen ikuspegia esparru guztietan kontutan hartzeko alternatibak sortuz.

Batzuek diote, beraien bizitzako hainbat alor eztabaidatu dutela, momentu horretararte konturatu gabe zirenak (zein lekutan ziur sentitzen diren, espaloi zabalak umeen kotxea pasatu ahal izateko...)

Adin ezberdineko hainbat emakume parte hartu zuen, ikuspegia askoz zabalagoa eta aberatsagoa izan da.

PROPOSAMENAK.

Normalean Hiri Debekatuaren Maparen eskaintza, Udaletxeetako Emakume gunek egiten du, oso botere gutxi duelarik. Interesgarriagoa izango zen Udaletxeetako

Hirigintza gunea bera izatea eskaintza egiten duena, askoz botere gehiago eta aldaketak egiteko askatasun gehiago baitute.

Instituzioek holako egitasmo bat eskatzen dutenean, garrantzitsua izango litzateke Emakume Elkartekin kontrastatzea gainbegirale lana egin dezaten.

Emakumeek uste dute, badaudela kasuak, instituzioen helburua etekinak ateratzea soilik dena, modu horretan herritarren aurrean ondo geldituz.

Aurrekontuak sortzen dituztenean, oso garrantzitsua da emakumeek beraien beharrak aldarrikatzea. Hiri Debekatuaren Mapan sortutako informazioa Mugimendu Feminista eta Emakume Elkartekin elkarbanatu beharra dago. Azkenik, "gauzak ez aldatzea" Instituzietarako arazo bat izan beharko litzatekela diote.

EMAKUME ETA HIRIGINTZAKO HITZALDIA:

Emakumea eta Arkitektura.
Txostenemailea: Aitziber Virgel



EGINDAKO EKIMENEN ADIBIDE ON BATZUK.

Bilbon 2.006-2.007 urte bitartean sortutako Power pointa “Gure auzoko aukeren mapa” deritzona, Bilboko Udalaren berdintasun sailak eskatua.

Santutxuko Emakume Gazteak, sortutako euskarazko bideoa, Santutxun emakumeentzako arriskutsuak diren lekuak.

Jardunaldietako bigarren atal honetan, Bilboko auzo ezberdinetako 20 emakumek parte hartu dute. Emakume arkitektua dugun Aitziber Virgel, hitzaldiari hasiera eman zion, hurrengo puntuetan oinarrituta:

- Emakumea eta hiria.
- Emakumeon egoera.
- Mugikortasuna.
- Kaleko zihurtasuna.
- Oinez egindako ibilbideak.
- Etxebizitza eta honen ingurunea.

Beste hiri batzuetan egindako lanak: Donostia, Bilbo, Iruñea, Montreal, Albacete.

Aitziberrek emandako hitzaldiaren ondoren, eztabaida txiki bat sortu zen, hiritarrok eta beren-beregi emakumeok dugun beharra, hirigintzako diseinuan parte hartzeko.

Suitzan hirigintzako proiektuak duten malgutasunagatik adibide bezala jarri zuten; aldaketak emateko aukerak ematen dituzte nahiz eta eraikinak eginda egon. Era berean, lekuak egokiak diren ala ez frogatu daiteke eta baita norberak ematen dion erabilera ere.

Emakumea zihur sentitzen ez den tokiei buruz ere jardun zuen eztabaidak, horietako batzuk parkeak, lurpeko aparkalekuak, eskaileretako ibilbideak, hain zuzen ere, aurrez aurretik kontrolatu ezin ditugun tokiak: arazo honi irtenbide bezala, aukera batzuk komentatu zituen: argitasun ona, paretetan timbreak laguntza eskatu ahal izateko eta abar...

Emakumeok hirigintzan egindako esfortsuak kontuan hartu gabe, jarraitzen dute emakumeentzako leku arriskutsuak eraikitzen, auzoak... Adibide bezala Miribilla auzoa aipatu zuten.

Egoera honen aurrean, parte hartutako emakumeek, leku guztietatik ibiltzeko eskubidea aldarrikatu zuten, emakumeon espazioak sortuz.



Eztabaida burutu eta gero “Gure auzoko aukeren mapa”ren Power Pointa eta Iduna Santutxu Emakume taldea egindako santutxuko leku arriskutsuen bideoa jarri zen; holako ekimenei garrantzia eman zioten, eta baita hauen gizartaratzeari ere.

Emakume eta Hirigintza gaiaren inguruan hausnartzeko interesa nabaria izan zen parte hartutakoen aldetik. GITE IPESekoei, 2.jardunaldietako ondorioak eta gaiaren inguruko ekimen berrietara gonbidatzea eskatu ziguten.